

Guraso Agurgarriok:

Ikas-etekinari buruzko arazo oso larria dago eta egoera horrek, sarritan, ikas-porrota edota formazioa bertan behera uztea dakar.

Aipatu arazo hori, neurri handi baten gero eta gutxiago irakurri izanak eta ikasleei irakurtzea zail egiteaz gain, irakurritakoaren ulermen maila oso urria dutena ikusteak eragindakoa da eta, egoera horrek txarragorako bidea besterik ez darama.

Ikaslerik gehienek, esperientziaz dakigu, ez dute irakurketa abiadan ez ulermen mailan oinarritzko zereginen arrakastaz aurre egin ahal izateko irakurketa eraginkorrerako gaitasunik garatzen eta, guzti horrek, euren heziketa-garapenean, eta berezitasunez ikas-prozesuan dituzten emaitzetan eta baita euren izaera eta motibazioan ere eragin nabarmen larria du.

Irakurtzeko ohitura, aspalditik oso maila urrian egotetik egoera kezkarriago batera erori da eta gainera, informatika alorreko teknologien etengabeko garapenak irakurketaren garrantzi eta praktika gainbehera ekarri ditu, egun, toki oso larrian egotea ekarriz.

Aipatu guzti horri, ohiko irakurketa metodologiaren ondorio diren ikaslerik gehienek irakurketa oso geldoak, lehen orrialdeak irakurtzean gogogabetu izanak eta batez ere hainbat porrot eta buru hausteen eragile izaten den ulermen maila oso urriak, besteak beste, eragindakoa izaten da. Irakurketa, egungo irakur-metodologiarekin, ez da jarduera intelektual erakargarria eta, ondorioz, oso gutxi irakurtzen da.

Horrek guztiak, halaber, ikasleei testu eta eduki maila berriei aurre egitean etsipen handia eta ezintasun garbia sorrarazten die. Egoera guzti horiek, halaber, ikasketa-emaitzetan islatzen dira.

PRAKAGORRIn, ikasleek euren irakurketa gaitasun maila motel eta erabat eskasak, eta berezitasunez, irakurtzen dutenarekiko azaltzen duten ulermen maila oso urritik eratorritako egoera kaltegarri naharoak eragiten dizkien arazoei irtenbide egokia aurkitzeaz arduratu gara.

Horregatik gure metodologia adieraztera eman nahi dizugu, irakurketa-abiada gehituz batera ulermenari dagokion atalean ikaragarritzko gehikuntza dakarren ikasbidea asmatu baitugu, ikasleak bere ikasketetarako gaitasunak errotik garatzea ekarriz.

Metodologia horrekin **Reading Skills** Ikastaroa garatu eta, besteak beste, hurrengo arloak hobetzea lortu dugu:

1. Hamar urte izanik, minutuko bataz beste 80 hitz (edo askoz gutxiago) irakurtzen dituzten ikasleen irakurketa abiada, minutuko 180 irakurritako hitz kopurura, edo gehiagora, jaso.

2. **PRAKAGORRI Readings Skills**, Metodologia 9 urte edo gehiago dituen edozein gizasemek ikas dezake, adin mugarik gabe.
3. Ikasleen bataz besteko irakurketa ulermena %70 edo maila jasoagoetara igotzen dugu.
4. Ikasleen Irakurketarako beharrezkoa den arreta eta kontzentrazio mailak era nabarmenean gehitzen dira.
5. Norbere autoestimua eta motibazioa nabarmen garatzen dira.
6. Astero, ikasle bakoitzak, bere adinaren arabera diren bi liburu gutxienez irakurtzeko gaitasuna lortzen du.
7. Ikasleen irakurzaletasuna areagotu egiten da eta liburuekiko harremana zeharo hobetu.

Ikasleek irakurketari egun eskaintzen dioten denbora era nabarmenean gutxitzeaz gain, informazioaren barneratze eta produktibitatea gehitu, hiztegia aberastu eta irakurle eraginkor izatera iristen dira, horrela ikastaldearen garapen dinamiko eta homogeenagoa izatea ahalbidetzez gain, irakasleen jarduera akademikoa erraztu eta ikasleen ikastorduak nolabait arintzea ekarriz.

Aipatu onura guzti horiek, besteak beste, ikasleen etekin akademikoan hobekuntza eragiteaz gain, ikasketetan sortzen diren arazoaren aurreikuspena egitea ahalbidetzen du, berezitasunez goi mailakoak diren ikasketetan.

Aldi berean, ikasleen motibazioan eta autoestimuan gure metodoak nabarmen eragiten du, norbere esfortzuekin eta bakoitzak bereak dituen garapen intelektualak landuz gerora zenbatezineko baliodun onurazko hobekuntza pertsonalerako helburuak lortzen direnaren ideia sendotuz.

Programa hau, besteak beste, Bizkaian Plentzia Ikastolan, Derioko IESean, Leioako Joxe Miguel de Barandiaran Institutuan, Derioko Herri Eskolan, Gaztelueta Ikastetxean eta Erandioko Alzaga DBH Institutuan irakatsi dugu eta Gipuzkoari dagokionez, Axular Ikastolan, Okendo Negozioetarako Gunean, Euskal Herriko Unibertsitatean, (Ibaetako Kanpusa), Sarrikoko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean, Arrasateko Polo Garaian (MCC, Mondragon Kooperatiba) etab. bezalako erakundetan irakatsi dugu, emaitza oso bikainak lortuz.


Orain arte azaldutakoagatik, **datorren azaroaren 30ean eta Abenduaren 1ean, arratsaldeko 18:00etan** ospatuko diren **PRAKAGORRI Reading Skills** gure **Irakurketarako Metodologiaren** inguruko **aurkezpen batzar** bietatik batera etorri zaitezten **gonbitea**

igortzen dizuegu. Aurkezpen batzar horietan, datorren **Azaroaren 7tik Maiatzaren 31ra arte JAKINTZA IKASTOLAN irakatsiko dugun** gure Metodologiaren oinarriko informazioa adierazteaz gainera, behingoan hastera doan Ikastaroari buruz egin nahi izango zenituzketen itaun guztiak atseginez argituko dizkizuegu.

Gure helburu nagusia ikasle guztiei euren irakurketarako gaitasunak era exponentzialean hobetzen laguntzeaz gain, ikasle eta irakurle gisa erabateko eraldaketa ekarriko dien irakurketa Metodologia irakatsi eta gure **PRAKAGORRI Reading Skills Metodologiaren bitartez**, ikasleek epe oso laburrean gutxienez bi liburu astero irakurtzeko gaitasuna lor dezaten nahi dugu, horrela irakurzaletasuna eta irakurketa bera suspertuz.

Laster JAKINTZA IKASTOLAN irakasten hasiko garen **PRAKAGORRI Readings Skills** Irakurketa-Metodologiaz azalpenak emateko antolatutako batzarrean elkar ikusiko dugula aldez aurretik eskertuz, jaso ezazu gure agurrik zintzoena.

Adeitasunez,



Gorka Aurre